



GOBIERNO
DE ESPAÑA

MINISTERIO
DE EDUCACIÓN
Y FORMACIÓN PROFESIONAL

Sarrera erregistroa

KEXA / IRADOKIZUN INPRIMAKIA (markatu X batekin dagokiona)

Izena

Lehen abizena

Bigarren abizena

Nazionalitatea

Helbidea (kalea, zenbakia, blokea, eskailera, solairua eta atea)

Udalerrria/Probintzia

Herraldea

Posta-kodea

NAN/AIZ/PASAPORTEA

Erakundea

e-posta

Telefonoa

Jakinarazpenetarako bide hau lehenesten dut:

Posta elektronikoa Egoitza Elektronikoa (markatu X batekin dagokiona)

GORABEHERA GERTATU DEN UNITATE EDO BALIABIDEAREN DATUAK

Gorabehera gertatu den unitatea/bulegoa eta lekuaren helbidea

Gorabeheraren data

HONAKOEN BIDEZ ESKAINITAKO ZERBITZUEI LOTUA: (markatu X batekin dagokiona)

BALIABIDE ELEKTRONIKOAK

BESTE BALIABIDE BATZUK

KEXAREN/IRADOKIZUNAREN ARRAZOIA

Azaldu labur kexa/iradokizuna aurkeztera bultzatu zaituzten gertaera eta inguruabarrak

DATU PERTSONALAK. Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra betez (DBEO), jakinarazten dizugu zure datuak KEXAK ETA IRADOKIZUNAK izeneko tratamenduan barne hartuko direla. Tratamendu horren titularrak Hezkuntza eta Lanbide Heziketa Ministerioa da, eta hemen azaltzen da horren gaineko oinarritzko informazioa:

- ARDURADUNA: Idazkaritza Tekniko Nagusia.
- TRATAMENDUAREN HELBURUAK: Kexak eta iradokizunak izapidetzea.
- LEGITIMAZIOA: DBEOaren 6.1 c) artikulua, 1045/2018 ED, 39/2015 Legea, 40/2015 Legea, 951/2005 ED.
- HARTZAILEAK: Beste administrazio batzuk, hala dagokionean.
- ESKUBIDEAK: Datuak atzitzea, zuzentzea, ezabatzea, tratamendua mugatzea, eramatea, horiei aurka egitea eta banakoen erabakien helburu ez izatea.

Inprimaki honen atzealdean duzu zure datuak babesteari buruzko informazio gehigarri eta xehatua.

Interesdunaren sinadura

Kexa edo iradokizuna jaso ostean, kudeaketaren arduradun den unitateak egindakoen berri emango dio interesdunari 20 egun baliodunen epean (951/2005 EDaren 16.1 artikulua). Erantzunik jasotzen ez badu, Hezkuntza eta Lanbide Heziketa Ministerioaren Zerbitzuen Ikuskaritza Orokorra jo ahal izango du, helbide honetan: Paseo del Prado, 28, 5ª Planta, 28014 Madril. Helbide elektronikoa: igs@educacion.gob.es (951/2005 EDaren 16.3 artikulua). Garrantzitsua: bidalitako kexak ez dira inoiz administrazio-errekurtso izango eta ez dute etengo araudian xedatutako eperik.

INFORMAZIO GEHIGARRIA

TRATAMENDUAREN ARDURADUNA

Idazkaritza Tekniko Nagusia
C/ Alcalá 34, 28014 Madril

DATUAK BABESTEKO ORDEZKARIA

Hezkuntza eta Lanbide Heziketa Ministerioaren Datuak Babesteko Ordezkarria (DBO) da Herritarren Arreta, Dokumentazio eta Argitalpenetarako Azpizuzendaritza Orokorraren titularra.

Hemen jarri zaitezke harremanean DBOrekin: dpd@educacion.gob.es

C/ San Agustín 5, 28014 Madril

TRATAMENDUAREN HELBURUAK

Hezkuntza eta Lanbide Heziketa Ministerioaren titularpeko KEXAK ETA IRADOKIZUNAK tratatzearen helburua da zuk aurkeztutako kexa edo iradokizunak kudeatu eta izapidetzea.

GORDETZEKO EPEAK EDO IRIZPIDEAK

Zure kexa edo iradokizunari izapidetu eta erantzuna emateko behar den denboran gordeko dira zure datuak. Artxibo eta dokumentazioei buruzko araudian ezarritakoa aplikatuko zaie.

ERABAKI AUTOMATIZATUAK

Zuk emandako informazioaren gainean ez da automatizatutako erabakirik hartuko.

LEGITIMAZIOA EDO LEGE-OINARRIA

Zure datuak eskatzen ditugu Hezkuntza eta Lanbide Heziketa Ministerioaren oinarrizko erakunde-egitura osatzeari buruzko abuztuaren 24ko 1045/2018 Errege Dekretuak Idazkaritza Tekniko Nagusiari ematen dizkion eskumenak oinarri.

Datuen tratamendua beharrezkoa da tratamenduaren arduradunari legez aplikagarri zaion betebeharra betetzeko (DBEOaren 6.1 c) artikulua).

Halaber, Administrazio Publikoen Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak eta Estatuko Administrazio Nagusiaren kalitatea hobetzeko esparru orokorra ezartzen duen uztailaren 29ko 951/2005 Errege Dekretuak ezarritakoari jarraituz egingo da tratamendua.

HARTZAILEAK

Beste administrazio batzuk, hala dagokionean.

ESKUBIDEAK

Datuak atzitzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, horien tratamendua mugatzeko, eramateko, aurka egiteko eta banakoen erabakien helburu ez izateko eskubidea erabil dezakezu interesdunaren eskubideak egikaritzeko inprimakia aurkeztuta identifikazio-agirierekin batera, erregistroko bulegoetan, postaz edo ministerioaren egoitza elektronikoan.

KONTROL AGINTARITZA

Datu pertsonalak babesteko kontrol-agintaritza Datuak Babesteko Espainiako Agentzia da (www.aepd.es).

DATU PERTSONALEN KATEGORIA

Tratatuko diren datu pertsonalak aurkeztu dizugun inprimakian agertzen direnak dira, eta zure oinarrizko identifikazio-datuei eta harremanetakoei buruzkoak dira.